

## MAIALEN

18 urte

"Iruditzen zait gure adin tarte honetan badirudiela bizitzako erabaki guztiak hartzen ditugula, eta hortik gerora, egin behar dugun bakarra erabaki horiek ekarri dituzten ondorioekin bizitzea dela. Baina etorkizuna erabakitzea, berez, etengabe egiten dugu eta ez da inoiz bukatzen"

# ETOR

## MAREN

20 urte

"Badakigu posible dela. Ez dakit utopia, baina bai behintzat utopiarako bidean dauden egiteko modu ezberdinak gauzatzea. Eta esaten dugunean gaurtik eraikitzen dugula, egia da. Gaurtik eraikitzen dugu"

# KI

# ZU

# INA

## JULENE

20 urte

"Nik oso asumituta daukat ezingo naizela nire herrian bizi. Hipoteka... nik ez dut nire burua harremandu nahi horrekin. Orduan, bi aukera ditut: edo onartu egoera, eta ez noa onartzera, edo asumitu ezingo naizela bizi herrian behintzat lan baldintza duinak izan arte"

## MIKELSA

20 urte

"Ni pixka bat hedonista naiz, eta momentuan momentua bizitzea gustatzen zait. Etorkizunari begira angustia edo beldurra pizten zait"



GERUZAK

# Zer da ETORKIZUNA?

ETORKIZUNAREN GAIAK ZER  
GALDERA PIZTEN DIZKIZU?

ETORKIZUNAK  
ZER ERAGITEN  
DIZU?

- BELDURRA
- GOGOIA
- POZA
- ZIURTASUNA
- ARBUIOA
- NAGIA
- ITOMENA
- ZIURGABETASUNA
- HASERREA
- URDURTASUNA
- KEZKA
- AMORRUA
- TRISTURA
- KITZIKAPENA
- DEZEPZIOA
- ITXAROPENA
- GRINA
- LASAITASUNA
- KONFIANTZA
- HARROTASUNA

ETORKIZUNA  
erlazionatzen dut...

Nolako etorkizuna? ETORKIZUNEAN...

NAHIKO NUKE

- 
- 
- 
- 
- 

EZ NUKE NAHIKO

- 
- 
- 
- 
- 

EZ DAKIT NAHI DUDAN ALA EZ

- 
- 
- 
- 
-

## HAUTATU HITZAK ESALDIAK OSATZEKO:

Nire etorkizuna erabakitzekeo...

Burujabe

Eta

Gauza

Menpeko

Baina

Ezgauza

...sentitzen naiz.

ZERGATIK?

Gure etorkizuna erabakitzekeo...

Burujabe

Eta

Gauza

Menpeko

Baina

Ezgauza

...sentitzen gara.

ZERGATIK?


## OSATU ESALDIAK:

Nire etorkizuna erabakitzekeo ..... sentitzen naiz!

Gure etorkizuna erabakitzekeo ..... sentitzen gara!

EGIA AIA  
GEZURRA?

- Etorkizuna orainaldiaren parte da.
- Etorkizuna idatzita dago eta beraz, iragarri daiteke.
- Etorkizuna ez da existitzen.
- Etorkizun asko daude.
- Etorkizuna bakarra da.
- Etorkizuna zeregin kolektibo bat da.
- Etorkizuna irudikatzea eta utopiak sortzea etorkizun hobeak eraikitzekeo tresna garrantzitsuak dira.
- Etorkizunak aldatu egingo nau.
- Etorkizuneko erabaki garrantzitsu asko, bereziki, bizitzako urte tarte batzuetan hartzen dira.
- Etorkizuna beti hobera doa.
- Etorkizunean heldu bihurtuko gara eta gure bizitza aspergarriagoa izango da.



Zuk etorkizunean  
zenbat pentsatzen  
duzu?

BATERE EZ

GEHIEGI

Zaila egiten  
al zaigu  
orainaldian  
bizitzea?

Oraina  
bizitzea  
ahazten al  
zaigu?

Inoiz esan behar izan  
al diozu zure buruari:  
"bizi momentua", "orain  
oraingoa", "carpe diem"  
edo antzekorik?

Inoiz esan behar izan  
al diozu zure buruari:  
"lehenaldia ezagutzen  
ez duena errepikatzera  
kondenatuta dago",  
"memoriarik gabe ez gara  
ezer" edo antzekorik?

Gaur zure pentsamendu  
eta elkarrizketetan  
zeini dedikatu diozu  
denbora gehien? Eta  
gutxien?

LEHENALDIARI


ORAINALDIARI

ETORKIZUNARI

ADOS AL  
ZAUDE?

Etorkizunean  
gehiegi  
pentsatzen  
dugu? Gehiegi  
proiektatzen gara  
etorkizunean?

GARAI  
EDO KULTURA  
GUZTIETAN  
HORRELA  
OTE?



Etorkizuna nolabait,  
denboran aurrera  
begirako proiektio  
bat da, eta modu  
desberdinetan pentsatu  
daiteke. Baina askotan,  
gure kulturen, oraina  
oso modu diferentian  
bizitzeko modu bat da  
etorkizuna. Askotan,  
etorkizunean gehiago  
bizi gara orainaldian  
baino. Eta etorkizunean  
gehiegi proiektatze  
horrek orainaren galera  
ekar lezake.

# Nola irudikatzen duzu ETORKIZUNA?

ORDUAN, ZUK  
ETORKIZUNEAN  
PENTSATZEN DUZU?

BAI  
ZERTAN?

EZ  
ZERGATIK?

- o
- o
- o
- o

- o
- o
- o
- o

Etorkizunean  
sinesteko arrazoiak  
zein dira?

Etorkizunean ez  
sinesteko arrazoiak  
zein dira?

Etorkizunean itxaropena,  
konfiantza eta poza  
sentitzeko arrazoiak  
zein dira?

Etorkizunarekiko  
beldurra, nagia edo  
arbuioa sentitzeko  
arrazoiak zein dira?

Etorkizunean aurreko  
belaunaldiak baino...

- HOBETO BIZIKO GARA.
- OKERRAGO BIZIKO GARA.
- GAUZA BATZUETAN HOBETO  
ETA BESTE BATZUETAN  
OKERRAGO BIZIKO GARA.
- DESBERDIN BIZIKO GARA.

Belaunaldi  
helduagoen  
bizi ereduaz  
zer iritzi  
duzu?


Bizi eredu  
bera izan  
nahi al duzu  
etorkizunean?

Ala beste  
eredu batzuk  
bilatu behar  
direla uste  
duzu?


Irudikatu zure etorkizuneko eszena bat, nahi duzuna, eta deskribatu.

NON ZAUDE?	NOIZ?	NOREKIN?	ZERTAN?	NOLA?

Etorkizuna zein koloretakoa da zuretzat? Margotu kolore zehatza.



Etorkizunari zenbat eskatzen diozu? Zure espektatibak zenbaterainokoak dira:



Eta zure belaunaldiak zenbat eskatzen dio etorkizunari?



Garbi dagoena da etorkizunari begira: maila personalean heriotza daukagu, herri gisa ere heriotza daukagu, eta eguzki-sistema ere heriotzara doa. Hori da gure etorkizuna.

Markosek kontrapuntua eman digu... zer eragiten dizute hitz horiek? Heriotzaren gaiak badu etorkizunarekiko duzun bizipenean, iritzian eta espektatibetan eraginik?



# NON ETA NOLA BIZIKO ZARA?

Goazen etorkizuna  
irudikatu eta iragartzera!

**GALDETU ELKARRI:**

## 10 URTE BARRU..... URTEREKIN:

- NON ETA NOREKIN BIZIKO ZARA?
- ZERTAN ARTUKO ZARA?
- ZEIN IZANGO DA ZURE JANARI/ EDARI GUSTUKOEA?
- GARRAIO PUBLIKOEA ERABILIKO AL DUZU?
- ZURE BURUAREKIN ETA GORPUTZAREKIN GUSTURA EGONGO AL ZARA?
- ZER HIZKUNTZATAN BIZIKO ZARA?
- GAUR BAINO ZORIONTSUAGOA IZANGO AL ZARA?

## 50 URTE BARRU..... URTEREKIN:

- ZER ORDUTAN JEIKIKO ZARA?
- ZER MUSIKA ENTZUNGO DUZU?
- JENDE BERRIA NOLA EZAGUTUKO DUZU?
- ZER BIZIO IZANGO DITUZU?
- EKONOMIKOKI LASAI BIZIKO AL ZARA?
- BIZITZEKO GOGOEA ETA ETORKIZUNEKO PROIEKTUAK EDUKIKO DITUZU?
- GAUR BAINO APALAGOA ALA HARROAGOA IZANGO ZARA?

DENBORAN AURREA  
EGIN ETA ZURE  
ETORKIZUNA EZAGUTZEA  
GUSTATUKO LITZAIZUKE?

ZER GATIK  
BAI?

ZER GATIK  
EZ?

## 30 URTE BARRU..... URTEREKIN:

- NOLA JANTZITA EGONGO ZARA?
- ASTEBURURAKO ZER PLAN IZANGO DUZU?
- JAIAK OSPATZEN JARRAITUKO DUZU?
- ZER ZALETASUN IZANGO DITUZU?
- GAUR EGUNGO LAGUNAK GORDEKO AL DITUZU?
- ZER NOLAKO OSASUNA IZANGO DUZU?
- GAUR BAINO ASKEAGOA IZANGO AL ZARA?

Zure etorkizuneko  
ZU-ari zer mezu  
bidaliko zenioke  
gaur? Zer traola  
erabiliko zenuke?

Etorkizuneko ZU-ak  
zer aholku emango  
lizuke? Zer uste  
duzu esango  
lizukeela bizitzaz?

Eta krisi  
anizkoitza edo  
ekosoziala  
zer?

Krisi ekosoziala edo  
anizkoitza aipatzean  
zer gai datokizu  
burura? Osatu zerrenda  
elkarrekin.

- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 

Gai hauek  
arduratzeko al  
zaituzte?

Zuen belaunaldiarentzat  
gai garrantzitsuak al dira?  
Ala urruneko sentitzen  
dituzue?

GAI HAUETAZ...

HITZ EGITEN DUT INGURUKO EKIN

INFORMATZEN NAIZ

FORMATZEN NAIZ

HAUSNARTZEN DUT

EZER GUTXI DAKIT

NAZKATUTA NAGO

OHITURA BATZUK UTZI EDO ALDATU DITUT

GUZTIZ KONTZIENTZIATUTA NAGO

...

Krisi ekosozialaren  
bueltan aipatzen diren  
idei hauek zer dira  
zuretzat

AUKERA ALA  
MEHATXUA?

Gaur egun  
Euskal Herrian  
sortzen ari diren  
mugimendu eta  
talde ekosozialez  
zer iritzi duzu?  
Ezagutzen al duzu  
batenbat?

ZEREN ALDE  
ARI DIRA  
MOBILIZATZEN?

ZEREN  
KONTRA?

- INGURUGIROAREKIKO ARDURA ETA ZAINTZA
- HIRIGINTZA EREDUEN ALDAKETA
- BIZIMOLDE EREDU BERRIAK GARATZEA
- ELIKADURA EREDU BERRIAK SUSTATZEA
- BIZIDUNEN ARTEKO HARREMAN MOTA BERRIAK ERAIKITZEA
- INDIBIDUALISMO TIK KOLEKTIBORAKO PAUSOAK EMATEA
- KONTSUMO GIZARTETIK BESTE GIZARTE EREDU BATERA PASATZEA
- PRODUKTIBITATE TIK HARATAGOKO BIZIMODUEI FORMA EMATEA
- MUGIKORTASUN EREDUA ALDATU ETA MUGIKORTASUNA MURRIZTEA
- ENERGIA GUTXIAGO ETA BERRIZTAGARRIA ERABILI BEHARRA



**Etorkizuneko balizko ideia hauetako 12 aukera itzazu. Ondoko multzo bakoitzeko zein hitzekin lotuko zenituzke? Pentsatu eta erabaki! Jarraian, partekatu eta alderatu norberaren hautuak besteenekin.**

Nomadak izango gara.

Guztiok berdintasunean biziko gara.

Begetarianoak izango gara.

Animaliek orain baino eskubide gehiago izango dituzte.

Gehienez ere 3 minutuko dutxak hartuko ditugu.

Euskal Herria zati bat tropikala eta bestea desertua izango da.

Herritarrak izan beharrean kontsumitzaile huts izango gara.

Euskal itsasertza itsasoak irentsiko du.

Igerileku guztiak debekatuko dira.

Teknologia eta Zientziaren erabilera on eta txarrei buruz gogoetatu, eztabaidatu eta erabaki ahal izango dugu.

Makinak izango dira gure lagunik onenak eta gure maitaleak.

Kulturak gure bizitzetan garrantzia itzela izango du.

Plazetan eta kaleetan biltzen jarraituko dugu.

Ziborg-ak izango gara.

Hipotekatuta bizitzen jarraituko dugu.

Elkar-zaintza izango dugu ardatz.

Bakea ezagutuko dugu.

Kontroletik at dagoen harreman analogikorik ez da izango.

Nahi beste, baina metabertsoan bakarrik bidaiatuko dugu.

Munduan hizkuntza eta kultura bakarra geratuko da.

Metabertsoan egingo ditugu ikasketak.

Akelarretan elkartuko gara.

Smartphone-ik gabe biziko gara.

150 urte biziko gara.

Ekonomia sozial kooperatibo baten biziko gara.

Ezingo dugu zuzenean airea arastu.

Hizkuntza eta kultura gutxituak babestuak eta zainduak izango dira.

Denak berrerabilgarria eta berriztagarria izan beharko du.

Euskal Herrian ez da eukaliptorik eta intsiniz pinurik egongo.

Euskal Herrian otsoak, hartzak, marrazoak eta baleak oso ohikoak izango dira.

Lehia eta konpetentziaren ideia modaz pasata egongo dira.

Bakardadea gure etsai eta beldurrik handiena izango da.

Astean 20 ordu egingo dugu lan.

Gizarte antolamendu eredu berriak ezagutuko ditugu.

Gure bizitzak soilagoak baina lasaiagoak izango dira.

Belaunaldi berriek ez dute estresa eta antsietatea zer den jakingo.

## ETORKIZUN...

EZINEZKOA

LITEKEENA

GERTAGARRIA

EKIDIEZINA

## ETORKIZUN...

NAHI EZTAKOA

ONARGARRIA

NAHIGARRIA

DESIRAGARRIA

Etorkizunaren izenean zer ez zenuke nahi inondik inora aldatzea?

Etorkizun hobe baten alde zu zure bizitzako zer aldatzeko prest zaude?

# Eta Big Data, errobotizazioa eta IA-ren aferra, zer?

Big Dataz,  
Bizitzaren  
errobotizazioaz  
eta Inteligentzia  
Artifizialaz zer  
iritzi duzu?

Botereak zelatatzen  
gaitu ala "Anai  
Handiari" geuk  
ematen dizkiogu  
gogotsu informazio  
guztiak?

IA-ak gainak  
hartuko al  
dizkigu?

Bizitzaren  
errobotizazioa  
gizakion  
zerbitzurako al  
da?

Teknologia berrikuntzek  
bizitza hobetzen al  
digute?

Makina adimentsuek  
gizatiak tentelago  
bihurtzen al gaituzte?

Teknologia  
neutroa izan al  
liteke?

Teknologia  
eta boterea,  
teknologia eta  
kontrola lotuta  
al daude?

## Teknologia berrien erabilfzaile gisa

ASKEAGO SENTITZEN NAIZ

LOTUAGO SENTITZE NAIZ

LASAI NAGO

KEZKA PIZTEN DIT

EZ DAKIT

MEHATXU BAT DIRA

EZ DUT HORRETAN PENTSATU NAHI

ALDERDI POSITIBOAK GEHIAGO DIRA

...

Gizarteak ikerkuntza eta  
berrikuntza teknologikoaren  
gaineko kontrola eta erabakimena  
izan beharko al luke?

Inoiz pentsatu al  
duzu nahita bizitza  
analogikoa edo  
analogikoagoa egitea?

Zer iruditzen zaizkizu  
"autodefentsa  
digitala", "erresistentzia  
digitala" edota "sare  
sozialekiko intsumisiao"  
bezalako ideiak?

Teknologia modu justuan edo injustuan erabili al liteke?

Gaur egungo teknologia digitalek zein giza talde tratatzen dituzte injustuki edo injustuago?

AI-ak zeinen antza izango du? Zein zapalkuntza erreproduzitu dituela uste duzu?

Gaur egun, teknologia garapenerako indarra da ala desberdintasunak areagotzen ditu?

Zer da zuretzat garapena?

Garapena beti zientzia eta teknologiari lotuta al dago?

Ala garapen sozialak existitzen dira? Eman adibide batzuk.

Hautatu berritasun sozial edo teknologiko bat, nahi duzuna, eta egin denboran aurrera. Etorkizunean zer garapen, zer emaitza, zer ondorio izango dituen aurreikusten saiatu. Aztertu alderdi desberdinetatik: soziologikoa, psikologikoa, ekonomikoa, politikoa, kulturala, ... Jarraian, entzun elkarri bakoitzak irudikatutakoa.

Teknologia ugaritasunak salbatuko al gaitu? Ala filosofia gehiago ere behar da?

### Giza eskubideak

TEKNOLOGIAREKIN DUGUN HARREMANA BIRPENTSATU BEHARRA AL DUGU?

TEKNOLOGIAREKIN DUGUN HARREMANA BIRPENTSATZEAK INGURUMENAREKIN ETA INGURUKO PERTSONEKIN DUGUN HARREMANA BIRPENTSATZEA AL DAKAR?

Ezagutzen al duzu DISTOPIA hitzaren esanahia? Ez bazaude ziur, bilatu edo galdetu.

# Distopiak eta Utopiak

EZAGUTZEN AL DUZU GAUR EGUN BOGAN DAUDEN FILM, SERIE, BIDEOJOKO, ELEBERRI, KOMIKI... DISTOPIKORIK?

ADIBIDERIK EMANGO?

---

---

---

---

---

GUSTUKO AL DITUZU?

IKUSTEN AL DITUZU?

Eman zuretzat bereziki aipagarriak diren mundu distopiko baten hiru ezaugarri.

- o
- o
- o



Nolako etorkizunak ematen dizu beldurra banako gisa?

Nolako etorkizunak ematen dizu beldurra kolektibo gisa?

ERRAZAGOA AL DA DISTOPIAK IRUDIKATZEA UTOPIAK IRUDIKATZEA BAINO? Alegia, errazago zaigu munduaren amaiera irudikatzea berdintasunezko eta justiziazko gizarte bat irudikatzea baino? ZERGATIK OTE?

Etorkizunarekiko aurreikuspen ilunek zer pizten dute zuegan, etorkizun hobea baten aldeko ahaleginerako grina, EDOTA irtenbide eta onura indibidualerako eta kontsumismo eta hedonismo hutserako joera?

Batzuek ORAINALDI DISTOPIKOA deitzen diote gaur egungo munduari. Ados al zaude? Gure munduak ba al ditu errealitate distopiko baten ezaugarriak?

Ezagutzen al duzu UTOPIA hitzaren esanahia? Ez bazaude ziur, bilatu edo galdetu.



ZER UTOPIA DITUZU(E)?  
NOLAKO ORTZIMUGA  
IDEALAK PROIEKTATZEN  
DITUZU(E)?

Eman desio duzun etorkizuneko  
ZU-aren hiru ezaugarri.

- 
- 
- 

Amesten duzun mundu horretatik urrun ala gertu gaude?

Utopien alde jarduteko motibazioak badituzu? Erraz topatzen dituzu motibazio horiek zure egunerokoan?

Egunerokoan utopia horien alde egiten al duzu(e) ezer?

Eman desio duzun etorkizuneko munduaren hiru ezaugarri.

- 
- 
- 

Begiak itxi eta pentsatu, imajinatu, bisualizatu eta proiektatu etorkizun hobe bat. Hartu behar duzun denbora, eta ondoren elkarri kontatu!

Elkarri kontatzen dizkiogun istorioek baldintzatu egiten gaituzte eta horrek, gaur ametsa dena bihar egia izateko aukera gehiago ematen ditu!

GAUR ZER  
EGINGO DUGU  
ETORKIZUN  
HOBE HORREN  
ALDE?